¿Respuesta del Sr. Alcalde? Que el asunto era muy delicado y antes de proceder a tomar los acuerdos propuestos en la moción habría que visitar a la Sra. Condesa (la que había regalado el cuadro) para exponerle ***"las dificultades con que tropieza para llevar a cabo la erección del monumento, y ello es debido por la frialdad con que se acogió en el País Vasco el acuerdo de perpetuar la memoria del benemérito defensor de los Fueros"***. ¡Menuda embajada! A ver quién era el valiente que se lo contaba a la hija del benemérito benefactor.

Se hicieron gestiones en Madrid con el conde de Romanones para sacar unas perras para los bustos de Calbetón y Lersundi, pero nada; todo fue inútil.



*Busto de Fermín Calbetón en la alameda de Deba. Al no recaudarse fondos suficientes para la estatua de Lersundi, se proyectó realizar un busto como el de Calbetón; incluso se planificó inaugurar ambos bustos el mismo día, cosa que nunca ocurrió.*

Pasaron los días y el concejal Sr. Ulacia volvía a la carga afirmando que ya que se había solicitado auxilio en Madrid para elevar la estatua de Lersundi, se inaugurase cuanto antes la de Calbetón.

El busto de Calbetón, realizado por el gran escultor Isidoro Uribesalgo, fue solemnemente inaugurado el 21 de diciembre de 1919 a los sones del Gernikako Arbola. La estatua, o mejor el busto del general Lersundi, nunca llegó a realizarse.

Y así acabó la historia:

La condesa María Isabel Lersundi se quedó sin el cuadro de papá y sin la estatua; los generosos o temerarios participantes en el crowdfunding se quedaron sin el dinero y sin la estatua, y los debarras de ayer y de hoy nos quedamos sin poder disfrutar de la visión de un bello monumento que hubiese enriquecido la estética de nuestra querida alameda.



# ARGAZKI zaharrak




80. hamarkada. Kotxe gainean: Pablo Turrillas, Iñaki Ruiz, Andrés Ballesteros. Behean: Oscar Urdangarin, Bittor Urain, Bittor Ocaña. Zutik: Luis Alvarez “Pilatos”.



*Joseba Etxeberria enbolatuetan.*



*Marinel Eguna. “Kaxarranka”. Iñaki Arrizabalaga, Manolo Pascual, Ramon Beitia eta Xabi Aznal. “Kaxa”ren gainean: Jon Esturo.*



*70. hamarkada. Goian: Txemi Sarasua, Xabi Deba. Behean: Xabi Azkarate, Juanjo Gorrotxategi, Martin Sukia.*




*"Lagun Artean" kuadrilla San Roke jaietan. 1960. urte inguruan.*



*1970-08-20. Umeen Eguna.*
*Gurutze Goikoetxea eta Xabier Egaña "Piti".*



*Mende hasiera. Ignacio Ettchetto, Edu Aramburu*
*eta Jose Mª Larrañaga "Palo".*



1960. Debako kuadrilla bat zezen plazan.



80. hamarkada. “Peña Miami” nesken kuadrilla.



1961. Felipe Izarra eta Luis del Campo
zezen-ikuskizun batean.



90. hamarkada. J.M. Urcelay, Agustin Astorkia, Josetxo Arana
eta J.A. Riesgo (bere gainean Jon Gorrotxategi).



80. hamarkada. Debako musika banda.



1969-08-17. Mariñel eguna.
Jose Mari Ulacia eta Nerea Unanue alkateak.
Ezkerrean, Itzi Juaristi eta eskuinean Kontxi Juaristi.
Behean, Nino Unanue.

# SAN ROKE 2022






















**ITURLAN, S.L.**

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**
**Tfno. Mugikorra: 635 717 732**
**Tfno.-Fax: 943 192 553**
fontaneriaiturlan@iturlan.com

**arrizabalaga**
**I T U R G I N T Z A**

ITURGINTZA, BEROKUNTZA eta GASA
konponketa, instalazio eta erreformak

Iturkale, 24
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 19 28 79
688 668 175

arrizabalagaiturgintza@gmail.com
www.arrizabalagadeba.net

CARPINTERIA
METALICA
J. PEREZ, S.L.

Pol. Ind. Itziar • Parcela Q 6
Tel.: 943 199 019 • Tel./Fax: 943 199 135
20829 **ITZIAR-DEBA**



**PERLAKUA - SAKA**

**NEKAZALTURISMOA • JATETXEA**

Arriola Auzoa. Perlakua - Saka Baserria • 20820 Deba - Itziar
Tel.: 943 19 11 37 • 615 739 432
**www.sakabaserria.com**
**info@sakabaserria.com**

**SALETXE Iturgintza**

**Ur • Gasa • Berogailua**
**Agua • Gas • Calefacción**

Hondartza, 8 - bajo
**20820 DEBA** (Gipuzkoa)
saletxe.deba@gmail.com

Móvil:
**618 208 923**

**FECIN**

F/60 YEARS DESIGNING & PRODUCING

Pol. Industrial de Itziar H, 7
20820 Deba (Gipuzkoa)
T. +34 943 199 284

www.fecin.es

COMPROMISO
CON EL DISEÑO
Y LA FABRICACIÓN
DE SOLUCIONES
PARA EL TRATAMIENTO
DE SUPERFICIES

**EAJ PNV**

*¡Os deseamos unas felices fiestas de San Roke!*

*Ondo pasa San Roketan!*

**Tel.: 943 19 25 25 • Itur Kale, s/n • 20820 Deba (Gipuzkoa)**




**Hostal Itziar**

**Itziar Jatetxea**

**Taldeentzako menu bereziak**

**Tel.: 943 199 061**

**www.hostalitziar.es - info@hostalitziar.es**



# 2022KO ZEZENKETAK
## FESTEJOS TAURINOS 2022

**Eduardo García Elosua**

Hainbeste kendu digun pandemia madarikatuak behartutako bi urteko etenaldiaren ondoren, abuztuaren 14an, festa giroa lehertu zen Deban. Ohitura betez, Iosu Azkoitxik San Rokeri eta bere txakurrari zapi gorria jarri eta "Gora San Roke!" "Gora Deba!" oihukatu eta gero, Txaro Garate debar ezagunak txupinazoa bota zuen, eta poztasun biziz erantzun genion bai debarrok eta bai gurera etorritako bisitariek. Festa-zalaparta hasi zen, bost egunez dibertitzeko eta gozatzeko leku paregabea bihurtu zen Deba.

San Roke jaiak berriro elkarrekin ospatzeko, Udalak prestatutako egitarau zabal eta askotarikoaren barruan, ezin ziren falta zezen-ikuskizunak. Kontuan izan behar dugu Debak aspaldiko harremana duela zezenekin, eta zezenak gure kulturaren parte izan direla historian zehar. Ez zen desenkajonamendua antolatu eta plazatik Osioko ukuilura ez zen entzierrotxorik egin, 2017, 2018 eta 2019an, arrakasta handiz, egin ziren bezala.

Aldiz, mantendu ziren larrabehien ospakizun tradizionalak, Marinel Eguneko entzierroa eta Umeen Egunekoa (Arrizabalaga familiaren ganadutegiko zezentxoekin) eta pikatzailerik gabeko entzierro eta zezenketak (abuztuaren 16an eta 18an, ohitura den moduan). Horren haritik, azpimarratu beharra dago, zezen-plazan egiten diren ekitaldietan ikusleon erosotasuna eta segurtasuna hobetzeko lanek jarraitzen zutela.

Ohi den bezala, zezenketak bikain antolatu zituzten, torileroek, hareatzariek, mulilleroek, aguaziltxoak eta ospakizunen garapen egokia bermatzeko nolabait parte hartu zuten gainontzeko guztiek ere ederki bete zituzten beren zeregin guztiak. Luis Mari Pastor bi nobilladetako zezen-aholkularia izan zen, eta Isidro Aristi albaitari-aholkularia.

Urtero bezala, agintarien balkoian, Salamancako ganadutegiko ordezkariak izan ziren; Lucía Fraile Maceín, bere senarrarekin batera; behin baino gehiagotan Debako plazara bertaratu den Lorenzo Fraile Martinen alaba.

Tras dos años de parón por la maldita pandemia que tanto nos ha quitado, el pasado 14 de agosto volvió a estallar la fiesta en Deba. Cumplido el ritual de la puesta del pañuelo rojo a San Roque y su perro por Iosu Azkoitxi, con el grito de ¡Gora San Roke! y ¡Gora Deba! que fue replicado con euforia por una multitud de debarras y visitantes y con el lanzamiento del chupinazo por la popular debarra Txaro Garate, comenzó el jolgorio propio de las fiestas patronales, convirtiendo a Deba en un gran escenario de diversión y regocijo durante cinco días.

Dentro del amplio y variado programa presentado por el Ayuntamiento para que todas y todos pudieran celebrar el reencuentro con las fiestas de San Roque, no podían faltar los festejos taurinos teniendo en cuenta que Deba tiene una relación ancestral con el toro y que la celebración de las fiestas con su concurso han formado parte de nuestra cultura a lo largo de la historia. No se ha programado ni procedido al desencajonamiento de los novillos en la plaza de toros y, por consiguiente, tampoco el posterior encierrillo desde la plaza a los corrales de Osio como se habían realizado, con indudable éxito, los años 2017, 2018 y 2019. Por el contrario, se han mantenido los festejos tradicionales de vaquillas, encierro del día del marinero y del día del niño, con ganado de la familia Arrizabalaga y los encierros y novilladas sin picadores que, como es habitual, se celebraron los días 16 y 18 de agosto. En este apartado, hay que resaltar que en la plaza se siguen haciendo mejoras que redundan favorablemente en la comodidad y seguridad de las personas asistentes a los distintos actos festivos que se celebran en la plaza.

Como viene siendo habitual, la organización de las novilladas fue sobresaliente, cumpliendo con nota sus tareas los torileros, los areneros, los mulilleros, el alguacilillo y el resto de las personas que intervinieron para garantizar el buen desarrollo de los festejos. El asesor artístico-taurino de las dos novilladas fue Luis Mari Pastor e Isidro Aristi fue la persona encargada del asesoramiento veterinario. Como cada año, en el balcón de autoridades, hubo una representación de la ganadería salmantina, este año, con la presencia de la hija de Lorenzo Fraile Martín, Lucía Fraile Maceín junto a su marido.

## Hilaren 16ko zezenketa

Cristiano Torresek, etorkizun handiko nobilleroak, bi faena eder zapuztu zituen ezpatarekin.

Lorenzo Fraile Martínen Tamameseko (Salamanca) Ventana del Puerto ganadutegiko lau zezen toreatu ziren. Kementsuak eta nobleak, nahiz eta bigun samarrak ere izan. Lehenengoak ezkerreko pitoi eder askoa zuen, nobleziaz eta luze jotzen zuen. Txalo ugari jaso zituen arrastean. Bigarrena zezen bikaina izan zen, kementsua, noblea, asko umiliatzen zena eta kalitate eta tentu handiz erasotzen zuena bi adarretatik. Hobera egin zuen eta ibilbide luzekoa izan zen. Hirugarrenak entzierro azkar-azkarra egin zuen, sigi-saga korrikalariak eraso nahian, baina ezin izan genuen gozatu; izan ere, muleta-lanaren hasieran, banderilleroetako batek ezkutalekurantz eraman eta kolpe handi bat hartu zuen. Kolpearen ondorioz, aurreko hankak tolesten hasi zen, behin eta berriz, eta pare bat aldiz etzan zen. Ahalmena izan zuen guztietan egoki erasotu zuen. Laugarrena kalitate handiko zezena izan zen; txalo ugari jaso zituen arrastean.

**Miguel Porta**: Huescakoa, berdez eta urrez jantzi zen. Ezpata-erdia sartu zuen ziztada baten ondoren eta deskabelloa bitan erabili ostean (abisua); plaza bazterretik agurrak. Kontrako ezpatakada; plazari buelta.

**Cristiano Ricardo (Torres)**: sagar eta urre kolorez jantzita. Ziztada, ezpatakada alboratua eta deskabelloarekin hiru saialdi. Plazari buelta. Lau ziztada eta ezpatakada. Agurrak abisua jaso ondoren.

**Txema Vitoria "Mami"** izan zen zezenketako presidentea, zezen-zale sutsua. 1964tik 2000ra Ozio-Bide Elkartearen danborradako danbor nagusia izan zen; aipa dezagun elkarteak 75 urte bete zituela 2022an. Fundamentu handiz bete zuen bere lana. San Roke eguneko zezenketa (jaietako egun handia) arrakastatsua izan zen; bai ikusleen aldetik, harmailak ia guztiz bete ziren, bai zezenen, toreatzaileen, musika bandaren eta Lizarrako gaiteroren aldetik. Ez zen saririk eman, baina, hala ere, zaleak aho-zapore onarekin atera ziren. Bi toreatzaileak berde tonu ezberdinekin jantzi ziren. Zaletuen ustean zortearen kolorea da berdea, eta, zezenketaren bilakaera ikusita, arrazoia eman beharko diegu.

## Novillada del día 16

Cristiano Torres, un novillero con gran futuro, emborrona con la espada dos grandes faenas.

Se lidiaron cuatro erales de la ganadería de la Ventana del Puerto, de Lorenzo Fraile Martín, de Tamames (Salamanca). Bravos y nobles, aunque blandearon un poco. El primero tuvo un gran pitón izquierdo embistiendo con nobleza y largura. Fuertemente ovacionado en el arrastre. El segundo fue un excelente novillo, bravo, noble, humilló mucho y embistió con mucha calidad y templanza por los dos pitones. El novillo fue cada vez a más y tuvo mucha duración. Fue premiado con la vuelta al ruedo. El tercero, que hizo un encierro rapidísimo corriendo en zigzag y tratando de embestir a varios corredores, no se le pudo ver ya que, al comienzo de la faena de muleta, uno de los banderilleros le hizo derrotar contra el burladero dándose un fuerte golpe que hizo que el novillo comenzara a doblar las manos de forma reiterada, llegando a echarse en un par de ocasiones. Cuando aguantó y pudo embestir lo hizo con calidad. El cuarto fue otro novillo con calidad muy aplaudido en el arrastre.

**Miguel Porta**: de Huesca, verde botella y oro. Media estocada tras un pinchazo y dos descabellos (aviso); saludos desde el tercio. Estocada contraria; vuelta al ruedo.

**Cristiano Ricardo (Torres)**: verde manzana y oro. Pinchazo, estocada tendida y 3 descabellos. Vuelta al ruedo. Cuatro pinchados y estocada. Saludos tras aviso.

Presidió la novillada **Txema Vitoria "Mami"**, gran aficionado. Desde el año 1964 al año 2.000 fue tambor mayor de la tamborrada de la Sociedad Ozio-Bide, que celebraba su 75º aniversario. Desempeñó sus funciones con mucha solvencia. El día de San Roque, día grande de las fiestas, la novillada fue un éxito. De público, los tendidos lucieron casi un lleno, de toros y toreros, de la banda de música y de los gaiteros de Estella. No hubo trofeos y, sin embargo, las aficionadas y los aficionados salieron con muy buen sabor de boca. Ambos toreros, con diferentes tonos, lucían un traje verde que los taurinos dicen que es el color de la suerte. Y, tal y como fue la tarde, habrá que darles la razón.



Miguel Porta, Aragoiko nobilleroa, Huescako zezen-eskolakoa da. Debara Ricardo Aguín "El Molinero" maisuaren eskutik etorri zen. El Molinero Huescako eskolako klase praktikoen zuzendaria da, eta jakina da Debako plazan aritu zela, bai nobillero eta bai zezen-hiltzaile gisa. Gaitasuna erakutsi zuen, eta, oro har, itxura ona hartu genion. Ezkerreko eskua ondo erabili zuen bere bi zezenekin, natural serie luzeak eta eskua baxu mantenduta. Kapotearekin hobetu behar du. Zorte txarra izan zuen hirugarren zezenarekin, oso indar gutxirekin geratu baitzen ezkutalekuaren kontra jo ondoren. Bere lehen zezenean ez zuen saririk lortu ezpata gaizki erabiltzeagatik, baina txalo zaparrada handia jaso zuen bazterretik agur eginez. Bere bigarren zezena hil ondoren, ikusleen erreakzioa oso hotza izan zen. Zalantzarik gabe, Debako plazan ohikoagoa den erreakzio batekin ikusleek nobilleroarentzat sariren bat eskatuko zuten; izan ere, ezkerreko eskuaz oso ondo toreatzeaz gain, zorte gorenean ere azkarra izan zen. Baliteke zezenaren ahuleziak eta kapotea pare bat aldiz galdu izanak zer ikusia izatea ikusleen jarreran. Hala ere, txalo-hotsak jasoz eman zion buelta plazari.

Cristiano Ricardo (Cristiano Torres): zaragozarra, Salamancako zezen-eskolako ikaslea da. Bere benetako izena Cristiano Ricardo Altimasveres da, Ricardo Altimasveres zezen-hiltzailearen semea. Zezen-karteletan Ricardo Torres bezala azaltzen da. Pikatzailerik gabeko nobillero gisa egin zuen debuta 2022ko otsailaren 20an, Frantziako Arzacq plazan, sari gorenak lortuz. Besteak beste, Arles, Valentzia, Hinojosa del Duero eta Granadako plazetan garaile atera ondoren iritsi zen Debara. Granadan, Almendra de Gor saria irabazi zuen eta Villacarrillon, abuztuaren 27an egin zen Andaluziako Zezen-eskolen XXVIII. Zikloaren barruan, lehenengo postua lortu zuen.

2006ko azaroaren 27an jaio zen, 16 urte besterik ez ditu, eta zaldirik gabeko nobillero gisa dimentsio handia duela erakutsi zuen. Nortasun handiarekin toreatu zuen, eta, zortea badu, etorkizun handia izango du. Nobillero berezia zela erakutsi zigun; paseotxoa modu berezian egin zuen, eta zezenekin izan zuen lehen hartu-emana kite bikain bat izan zen, Miguel Portaren zezenari egin zion beronika-pase eder askoa hain zuzen ere. Bere zezenetan kapotearekin barietate handia erakutsi zuen; beronikak, beronika erdiak, delantalak eta esku baxuko txikuelinak egin zituen.

Bere lehen zezenean, arratsaldeko bigarrena, belauniko hasi zuen muleta-lana, ikusleoi asko gustatu zitzaizkigun paseak bizkarrean aldatuta. Lanean jarraitzeko jaiki zenean, zezenak eraso egin eta izterrean jo zion. Prakak hautsi zizkion arren, lasaitasun handia erakutsi zuen eta ez zuen inolako keinurik egin. Toreo-zertzeladez betetako lana egin zuen, serie luze eta sakonak bi adarretatik, txandaka errematatuz trintxera-pase edo bularreko pase luzeekin. Lastima ezpatarekin egoki amaitu ez izana. Buelta eman zion plazari, ikusleen txalo beroen artean.

Arratsaldeko laugarrena plazari eskaini zion. Erdi-erditik ekin zion lanari. Zezenari urrutitik deitu eta sakon toreatu zuen eskuineko adarretik. Muletarekin duen maisutasuna ezkerrarekin toreatzean erakutsi zuen, bereziki pase-multzo bikain batean. Gustu onez egindako apaingarri eta trintxera-paseekin bukatu zuen saioa. Berriro ere ezpatak eragotzi zion sari handia.

Miguel Porta, novillero aragonés, pertenece a la escuela Taurina de Huesca. Acudió a Deba acompañado por el maestro Ricardo Aguín "El Molinero", director de las clases prácticas de la escuela oscense y que, como ya es conocido, tuvo varias actuaciones en la plaza de Deba, ya fuera como sobresaliente, como novillero o como matador de toros en un festival. Mostró algunas buenas cualidades causando, en general, una buena sensación. Manejó bien la mano izquierda en sus dos erales, dando series de naturales con pases largos y de mano baja. Debe mejorar con el capote. Tuvo mala suerte con el tercer novillo que quedó muy mermado de fuerzas tras golpearse con el burladero. En su primer novillo no obtuvo ningún trofeo por el mal manejo de la espada pero recibió una gran ovación saludando desde el tercio. Tras finiquitar con su segundo eral, la reacción del público fue muy fría. No tengo ninguna duda de que con una reacción más habitual en la plaza de Deba, el respetable habría pedido algún trofeo para el novillero ya que, no solo toreó muy bien con la mano izquierda, sino que fue breve en la ejecución la suerte suprema. Es posible que influyese la flojedad del novillo y que fuera desarmado en un par de ocasiones. Sin embargo, dio una clamorosa vuelta al ruedo.

Cristiano Ricardo (Cristiano Torres): natural de Zaragoza, es alumno de la Escuela Taurina de Salamanca. Su nombre es Cristiano Ricardo Altimasveres y es hijo del matador de toros Ricardo Altimasveres, Ricardo Torres en los carteles. Debutó como novillero sin picadores el 20 de febrero de 2022 en la plaza francesa de Arzacq consiguiendo los máximos trofeos. Llegaba a Deba después de haber triunfado en plazas como Arles, Valencia, Hinojosa del Duero o en Granada, donde se impuso como vencedor de la Almendra de Gor y se clasificó en primer lugar para la final del XXVIII Ciclo de Novilladas de las Escuelas de Andalucía, en la que acabó imponiéndose el 27 de agosto en el festejo que tuvo lugar en Villacarrillo.

Con sus 16 años, nació el 27 de noviembre de 2006, ofreció una gran dimensión como novillero sin caballos toreando con una gran personalidad y confirmando que, si no le es esquiva la suerte, tiene un gran futuro. Ya nos hizo sentir que era un novillero especial con la peculiar forma de hacer el paseíllo. Su primer contacto con los erales fue un gran quite por verónicas en el novillo cuya muerte correspondía a Miguel Porta. En los novillos de su lote demostró su variedad con el capote toreando por verónicas, medias verónicas, delantales y chicuelinas de mano baja.

En su primer novillo, el segundo de la tarde, comenzó la faena de muleta de rodillas con pases cambiados por la espalda que gustó muchísimo al público. Al levantarse para continuar la faena, el novillo hizo por él y le golpeó en el muslo rompiéndole la taleguilla pero, mostrando una gran serenidad, ni siquiera se inmutó. Hizo una faena salpicada de torería con series largas y profundas por los dos pitones, rematando alternativamente con trincherazos o largos pases de pecho. Una pena no haber completado el triunfo con la espada. Dio una vuelta al ruedo entre calurosos aplausos del público.

2023ko apirilaren 23an Zaragozako San Jorge ferian pikatzaileekin debutatu zuen, eta bizkarrean atera zuten bere lehen zekorrari bi belarri moztu ondoren, lan borobila izan zen eta plaza hankaz gora jarri zuen. Joan den ekainaren 5ean, garrantzi handiko debuta izan zuen Frantzian. Hitzartuta dauka 2023an Andaluziako Zirkuituan zaldiekin beste nobillada bat toreatzea; izan ere, aukera hori eta paseorako kapote bat irabazi zituen 2022an Andaluziako Eskolen Nobillada Lehiaketa irabazteagatik.

**Daniel Sanchez** izan zen zezenketako sobresalientea. Benetan ondo aritu zen egin zituen kiteetan.

### Hilaren 18ko zezenketa

Puerto de San Lorenzoko zezenak. Ederki aurkeztuak, bai kilotan, bai askotariko jokoa ematen. Lehena zezen kementsua izan zen, noblea; oso ondo erasotzen zuen bi adarretatik. Txalo ugari jaso zituen arrastean. Bigarrena, mantso samarra, baina arrazakoa eta kastakoa; joko handia eman zuen, eta pase asko izan zituen. Txalotua arrastean. Hirugarren eta laugarren zezenak oso zailak izan ziren, jokaeran otzanak, eta nobilleroek ezin izan zituzten menderatu.

Euri-jasen ondorioz zezenketa bertan behera uzteko zorian egon zen. Eguerdirako antolatutako larrabehien ikuskizuna ez zen egin, plazako hondarraren gainean toldo batzuk jarri ahal izateko eta euri-uretik babesteko. Baina neurriak ez zuen izan nahi bezalako emaitza, eta zezenketa hasteko orduan, plaza oso egoera txarrean zegoen.

Euria egin zuen zezenketa hasi aurretik eta ikuskizun osoan zehar. Baina eguraldi txarra egin arren, plaza erdia pasa bete zen.

**Nabil El Moro**: gorriminez eta urrez. Isiltasuna hiru abisuren ondoren eta isiltasuna bi abisuren ondoren.

En el cuarto de la tarde, que brindó al público, inició la faena citando al novillo desde el centro de la plaza. Enganchó al eral de lejos y toreó con profundidad por el pitón derecho. Pero donde demostró su gran mando con la muleta fue en el toreo con la izquierda, en especial en una serie que fue excelente. Cerró con unos adornos y trincherazos hechos con mucho gusto. Otra vez la espada le impidió un triunfo de gran dimensión.

Ha tenido un triunfal debut en novilladas con picadores el 23 de abril de 2023 en la feria de San Jorge de Zaragoza, saliendo a hombros tras cortar dos orejas a su primer novillo con una rotunda faena que puso la plaza boca abajo. El pasado 5 de junio, también tuvo un debut de mucha importancia en Francia. Tiene garantizado torear otra novillada con caballos en el Circuito de Andalucía el 2023, como premio que ganó, junto con un capote de paseo, por ser el vencedor del Certamen de Novilladas de las Escuelas de Andalucía el año 2022.

El sobresaliente del festejo fue **Daniel Sánchez**, que estuvo francamente bien en los quites que realizó.

### Novillada del día 18

Novillos del Puerto de San Lorenzo. Muy bien presentados, con kilos y con juego diverso. El primero fue un eral bravo, noble y con muy buenas embestidas por ambos pitones. Muy aplaudido en el arrastre. El segundo un mansito enrazado y encastado que dio mucho juego y tuvo muchos pases. También aplaudido en el arrastre. Tercero y cuarto dos novillos muy difíciles que mansearon mucho y con los que los novilleros no pudieron nunca.

Estuvo a punto de suspenderse el festejo por el agua caída. Sí fue suspendido el festejo de vaquillas programado para el mediodía para poder colocar unos toldos sobre la arena de la plaza para protegerla del agua. La



**Pedro Andrés**: alberjiniaz eta urrez. Belarria eta belarria abisua jaso ondoren. Bizkarrean hartuta atera zuten.

**Maria Reyes Galdona** debar zezen-zale ezaguna izan zen zezenketako presidente. Gertatutako guztiak gertatuta, ez zen egunik egokiena izan zezenketaren buru izateko. Hala ere, bere lana bete zuen.

Paco Apaolaza Lagunarteko presidentea den Manuel Harina zezen-kritikaria, Begoña del Teso kazetari eta zale sutsua eta Kanboko ordezkariak egon ziren agintarien balkoian. 16an bezalaxe, Lucia Fraile ganaduzalea bertaratu zen.

Nabil El Moro, Iruñekoa, Javier Munarriz entzierroetako korrikalari iruindarrak ahaldundutako nobilleroa da. Enpresaburu bihurtu eta Nafarroan zezenketak antolatzen ditu Nabil "El Moro"-ri laguntzeko helburu nagusiarekin. Zenbait garaipen garrantzitsu lortuta iritsi zen Debara, hala nola Cuencako Altarejoseko plazan edo Lizarran lortutakoak; azken bi horietan hiru belarri ebaki zituen.

Deban ez zitzaion ondo joan. Ziur asko, hondarraren egoera txarragatik, eta bere lehen zezenean, txilin-buelta bat eman eta buruan kolpe handia hartu zuelako. Une horretatik aurrera desagertuta eta noraezean ibili zen arratsalde osoan zehar, segurtasun falta eta beldur handia erakutsiz; zezenek, kastakoak, asko estutu zuten, eta haien mende egon zen. Kuadrillako kideek lan gehiago egin behar izan zuten, besteak beste, Manolo Reyesek eta Asier Echaniz azpeitiarrak. Arauzko hiru abisuak jaso zituen bere lehenengoan, eta Manolo Reyesek akabatu behar izan zuen zezena ezkutalekutik. Bigarrenean, festako hirugarrena, lehendakariak beste bi abisu eman zizkion zezena hil aurretik. Espero dut eta desio dut Deban gertatutakoa huts bakan bat besterik ez izatea, eta Nabilek aurretik zituen sentsazio onak berreskuratzea. Azpimarratzekoa izan zen ikusleen portaera bikaina, ez baitzioten nobilleroari oihualdirik egin, eta lanean aritu zen bitartean isil-isilik egon ziren.

Zezena bizirik gelditu zen eta nola jokatu behar zen erabakitzeko iritzi desberdinak egon ziren. Garrantzitsua da adieraztea Euskadiko Zezenen Araudiak ezartzen duena zuzen aplikatu zela. Ikus dezagun erregelamendu horrek zer xedatzen duen:

*"78. artikulua.- Abisuak eta lantze arrunta burutzeko ezintasuna.*

*Lehenengo muleta pasea egin eta hamar minutura zezena oraindik bizirik badago, turuta joko da plaza-buruaren aginduz, lehen abisua emateko. Hiru minuturen buruan, bigarren abisua emango zaio eta bi minutu beranduago, hirugarrena, hau da, azkena. Une horretara heldutakoan, ezpatariak eta gainontzeko zezenkariek barrerara jo beharko dute eta zezena kortara itzuli edo sastakatu egingo dute. Ezin bada ez itzuli ezta sastakatu ere, plaza-buruak hurrengo txanda dagokion zezen–hiltzaileari eman diezaioke zezena hiltzeko agindua, ezpataz, nahiz zuzenean deskabellatuz, animaliaren egoeraren arabera".*

idea no tuvo el efecto deseado y, a la hora del comienzo de la novillada, el piso estaba en muy malas condiciones. A pesar del mal tiempo, llovió antes y durante la novillada, hubo media entrada larga.

**Nabil El Moro**: de bermellón y oro. Silencio tras tres avisos y silencio tras dos avisos.

**Pedro Andrés**: de berenjena y oro. Oreja y oreja tras aviso. Salió a hombros.

Presidió la novillada **María Reyes Galdona** acreditada aficionada local. No fue el día más idóneo para presidir una novillada en su pueblo por todo lo que aconteció en la plaza. No obstante, dadas las desfavorables circunstancias, cumplió.

En el balcón de autoridades estuvieron presentes Manuel Harina, crítico taurino y presidente de la peña Paco Apaolaza; Begoña del Teso, periodista y aficionada apasionada, y una representación de Cambo. Repitió presencia la ganadera Lucía Fraile.

Nabil El Moro, de Pamplona, es un novillero apoderado por Javier Munarriz, corredor de encierros pamplonés, convertido en empresario que organiza novilladas en los pueblos de Navarra con el objetivo principal de ayudar a Nabil "El Moro", que llegó a Deba precedido de algunos triunfos de relevancia como el conseguido en la plaza conquense de Altarejos o en Estella, habiendo cortado en ambas tres orejas.

En Deba no le fueron bien las cosas. Seguro que, además del mal estado del piso, influyó el hecho de que, en su primer novillo, sufriera un aparatoso revolcón con un fuerte golpe en la cabeza. Desde ese momento, desapareció del festejo y estuvo deambulando por la plaza toda la tarde mostrando mucha inseguridad y muchos temores, quedando a merced de unos novillos encastados que apretaron mucho. Fue un trabajo extra para la buena cuadrilla que le acompañaba, entre los que estaban Manolo Reyes y el azpeitiarra Asier Echaniz. Recibió los tres avisos reglamentarios en su primero y el novillo tuvo que ser apuntillado desde el burladero por Manolo Reyes. En el segundo de su lote, tercero del festejo, la presidencia le envío otros dos avisos antes de finiquitar con el eral. Espero y deseo que lo de Deba sea solo un borrón pasajero y que Nabil recupere las buenas sensaciones de las que venía precedido. Destacar el excelente comportamiento del público que no abroncó, en ningún momento al novel novillero limitándose a silenciar su labor.

Como al quedar vivo el novillo, había diferentes opiniones de como se debía proceder, es importante señalar que se aplicó de forma correcta lo que establece el Reglamento Taurino de Euskadi. Veamos lo que dispone el citado Reglamento:

*"Artículo 78.- Avisos e imposibilidad de ejecución ordinaria.*

*Transcurridos diez minutos desde el primer pase de muleta, si la res no hubiera muerto, la Presidencia ordenará el primer aviso por toque de clarín; tres minutos después el segundo aviso y dos minutos más tarde el tercero y último, en cuyo momento el espada y demás lidiadores se retirarán a la barrera para que la res sea devuelta a los corrales o apuntillada. Si no fuera posible lograr la*

Pedro Andrés, Gasteizkoa, Salamancako Eskolako ikaslea da. Bere aitarekin, Jesús Andresekin, etorri zen. Jesús Andrés torero gaia izan zen eta Debako plazan aritu zen birritan. 1992. urtean, sobresaliente moduan, eta 1993. urteko San Roke egunean, nobillero; zezen bat hil gabe utzi zuen, kasualitatea da, gero! Ahaldun gisa Jorge Manrique zezen-hiltzaile ohia etorri zen, horrek ere Deban toreatu zuen 1981eko abuztuaren 16an.

Bere lehen zezenean dotore aritu zen. Paseak behetik emanez ekin zion lanari, arraza eta indarra zuen zezena menderatzeko. Pare bat aldiz armagabetuta geratu zen. Lehen agerraldia duina baino gehiago izan zen, ezpataerdi batekin hil zuen zezena, leku onean sartuta eta aurretik bi ziztada egin ondoren. Bere bigarrenean, zezen otzan eta zaila, gabezia asko erakutsi zituen eta ezin izan zuen menderatu. Zezena plazatik ateratzeko unea luzatu egin zen, eta nobilleroaren lagunak belarria eskatzen hasi ziren, zarata handia eginez. Nahasmenean, belarria eskatzen zuten ikusle kopurua handituz joan zen, eta plaza-buruak belarria eman zion. Eskuzabaltasun handi horrek ate handia ireki zion gazteiztarrari.

**Daniel Sánchez** sobresalienteak berriro erakutsi zuen kite onak egiten dakiela, eta ikusleek asko txalotu zuten.

Nola izaten diren gauzak, San Roke eguneko zezenketan ez zen saririk eman, eta jendea oso pozik atera zen oso emanaldi ona ikusi baitzuten; une bikainak egon ziren, ez zen ezer itsusirik egon, eta, gainera, tarteka, toreo bikainez gozatu ahal izan zuten. Bigarren zezenketan, ate handia zabaldu zen, baina ikusleak oso atsekabetuta atera ziren. Eta arrazoi osoarekin, ez zen arratsalde ona izan, eta ez zen egoera ondo gobernatu. Hori bai, nabarmentzekoa da euria eta haizea nagusitu arren, horrenbeste jende bildu izana.

*devolución de la res a los corrales o su apuntillamiento, la Presidencia podrá ordenar al matador que siga en turno al que hubiera actuado, que mate la res, bien con el estoque o directamente con el descabello, según las condiciones en que se encuentre aquélla".*

Pedro Andrés, de Vitoria, es alumno de la Escuela de Salamanca. Vino acompañado por su padre Jesús Andrés, que fue aspirante a torero y actuó en la plaza de Deba en dos ocasiones. El año 1992 como sobresaliente y el día de San Roque del año 1993 como novillero. Y, casualidades de la vida, dejó un novillo sin matar. Vino como apoderado el ex matador de toros Jorge Manrique, que también toreó en Deba el 16 de agosto de 1981.

En su primer novillo hizo cosas buenas. Comenzó la faena con pases por abajo para poderle al novillo que tenía raza y poder. Fue desarmado un par de veces. Fue una actuación más que digna en su primer novillo al que mató de media estocada, en buen sitio, tras dos pinchazos previos. En el segundo de su lote, un novillo manso y difícil, mostró muchas carencias y no pudo nunca con el eral. Se tardó en proceder al arrastre del novillo y, gente cercana al novillero, comenzó a solicitar, con mucho ruido, la concesión de una oreja. En la confusión, la petición fue creciendo y la presidencia concedió una generosa oreja que permitió al vitoriano salir por la puerta grande.

El sobresaliente **Daniel Sánchez** volvió a lucirse en algún quite y fue muy aplaudido por el público.

Lo que son las cosas, en la novillada del día de San Roque no hubo trofeos y la gente salió muy satisfecha porque vio un muy buen festejo, brillante por momentos, en el que no se hizo nada feo y, además, pudo disfrutar de un toreo que, a veces, fue sobresaliente. En la segunda novillada, con puerta grande incluida, se vio a la gente muy decepcionada. Y estaba justificado, porque no fue una buena tarde y tampoco hubo un buen gobierno de las cosas. Eso sí, fue encomiable la afluencia de público en un día de lluvia y viento.






# SARRERA ETA ATEEN BANAKETA

# DISTRIBUCIÓN DE ENTRADAS Y PUERTAS







| Sarrerak<br>Entradas | Ateak<br>Puertas | Prezioa<br>Precio |
|---|---|---|
| PREFERENTZIA<br>PREFERENCIA | 1 | 25 € |
| ITZALA<br>SOMBRA | 5 | 22 € |
| OROKORRA<br>GENERAL | 3 | 19 € |
| OROKORRA<br>GENERAL | 4 | 19 € |

**DESENKAJONAMENDUA**
DESENCAJONAMIENTO | 5€

**Sarreren aurre-salmenta turismo bulegoan abuztuaren 12a arte** • Venta anticipada de entradas en la oficina de turismo hasta el 12 de agosto.
**Sarreren salmenta udaletxe azpian egingo da abuztuaren 16an eta 18an (12:00-14:00 / 16:00-18:00)**.
Venta de entradas en los bajos del ayuntamiento los días 16 y 18 (12:00-14:00 / 16:00-18:00).

Exclusivas

Pelegrin

Embutidos, jamones y quesos.
Hestebeteak, urdaiazpikoak eta gaztak.



Ondo pasa San Roketan!!

Mendarozabal, 13
Tel.: 943 53 16 01
Móvil: 670 74 01 65
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

administracion@exclusivaspelegrin.com
www.exclusivaspelegrin.com



TALLERES Y CARROCERÍAS

NOIA S.L.

609 834 438 (Itziar-Deba)
636 867 812 (Zumaia)



Pol. Ind. de Itziar, Parcela C • Apdo. 40
Tel.: 943 606 291
**20820 ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)**
**noia@carroceriasnoia.com**

Hego kalea, Parcela B3 • Apdo. 70
Tel.: 943 861 363
**20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)**
**zumaia@carroceriasnoia.com**

**www.carroceriasnoia.com**




Itxaspe Auzoa, Tel.: 943 199 377 • 20829 ITZIAR (Gipuzkoa)
www.campingitxaspe.com